



Aurretiazko genero eraginaren txostena

Foru Arau aurreproiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen

1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren alde aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren alde aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren alde aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.



2. Arau aldaketak

Proiektu honetan, 2022ko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrei buruzko erregulazioaz gain, Hirugarren eta Laugarren Xedapen Gehigarriek aldaketa garrantzitsuak sartzen dituzte 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan aplikagarria den araudian (12/1989 Foru Araua, uztailaren 5koa) eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan aplikagarria den araudian (3/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa).

Zehazki, proposatzen diren aldaketa nagusiak honakoak dira:

1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ)

2021. urtean indarrean dauden balio katastralak %1,5ean eguneratzen dira.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)

Zergaren zenbateko nominal batzuek %1,5ean eguneratzen dira.

- Oinarri orokorraren tarifa (75.1 art.)

2021ean indarrean dagoen tarifa

oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	16.030	23,0%
16.030	3.686,90	16.030	28,0%
32.060	8.175,30	16.030	35,0%
48.090	13.785,80	20.600	40,0%
68.690	22.025,80	26.460	45,0%
95.150	33.932,80	31.700	46,0%
126.850	48.514,80	58.100	47,0%
184.950	75.821,80		49,0%

Proposamena 2022

oinarria	kuota	gainerakoa	%
0	0	16.280	23,0%
16.280	3.744,40	16.280	28,0%
32.560	8.302,80	16.280	35,0%
48.840	14.000,80	20.910	40,0%
69.750	22.364,80	26.860	45,0%
96.610	34.451,80	32.180	46,0%
128.790	49.254,60	58.980	47,0%
187.770	76.975,20		49,0%



- Beste kontzeptu batzuk

	Indarrean 2021ean	Proposamena 2022
Batera tributatzeagatik murrizpena (73 art.)		
Biparentala	4.347	4.413
Monoparentala	3.776	3.833
Kuota orokorraren murrizpena (77 art.)	1.432	1.454
Kenkaria ondorengoengatik (79.1eta-2 art.)		
1	603	613
2	747	759
3	1.261	1.280
4	1.490	1.513
5 edo gehiago	1.946	1.976
6 urtetik beherakoa	347	353
Kenkaria aurrekoengatik (81 art.)	289	294
Kenkaria adinagatik (83 art.)		
65 urtetik gorakoak	346	352
75 urtetik gorakoak	632	642

euroak

3. Genero eragina

3.1. Genero egokitasuna

Proiektu honen barruan nabarmen bi arau aldaketa mota bereizten dira. Alde batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022. urteko Aurrekontu Orokorren onarpenari lotutako araudia. Beste alde batetik, OHZn eta PFEZn proposatutako aldaketak.

Lehen kasuan, proiektuaren amaierako hartzaileak lurraldeko biztanle guztiak dira; aldiz, bigarren aldaketek eragiten die OHZ eta PFEZ aitortzaileei.



Hortaz:

- amaierako talde hartzailea pertsona fisikoak izanik,
- eta xedapen normatiboak eragina izanda emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan,

Ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

3.2. Genero eraginaren balorazioa

3.2.1. Hasierako egoera

Azken urteetan Gipuzkoako gizon eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko erreferentziazko adierazleen bilakaerak, oro har, ibilbide positiboa izan du, emakumezkoen jatorrizko egoera okerragotik abiatuta, beti ere. Hala ere, oraindik ere urrats asko eman behar dira benetako egoera parekidea lortzeko eta mendeetako bazterketa egoeraren ondorioak gainditzeko. Horrez gain, azken urteotako krisi ekonomikoaren ondorioz, gizartearen sektore guztiak kaltetuak izaten ari dira, langabezia areagotuz, ongizate estatuko zenbait zerbitzuetan murrizketak ezarriz, zeharkako zergak handituz... Gainera, errenta maila baxuko eta babesik gabeko pertsonengan eragina askoz kaltegarriagoa izaten ari da, jakin dakigularik, pobreziaren tasa neurtzeko erabiltzen dugun adierazleak emakume eta gizonen arteko arraila altua erakusten duela.

EUSTATEk egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2018an Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 17.459 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 28.100 eurokoa (%37,9ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %39,9koa da (10.237 euro eta 17.032 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murriztagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %23,4k 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonezkoetan talde hori % 13,0koa da. Emakumeen erdia



baino gehiagok (%54,3) urtean 15.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %30,2 diren bitartean.

Lan-merkatuari dagokionez, covid-19aren pandemiak eragindako krisiak eten egin du, azken urteetan nabari zen langabezia tasen genero arteko arrailaren murrizpen joera. Enpleguaren beherakada handiagoa izan da emakumeen artean gizonen artean baino. Horrela, EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2021eko hirugarren hiruhilekoan emakumeen okupazio tasa %48,0koa izan zela, gizonezkoena %56,4koa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, 2021eko hirugarren hiruhileko horretan Gipuzkoako emakumeen langabezia tasa %7,3koa izan zen, eta gizonena %6,8koa.

Erâ berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2021eko iraileko datuen arabera, Gipuzkoan SBEa jasotzen duten pertsoen %56,9a emakumeak dira.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobrezia eta bazterkeriaren inkesta, 2017" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekaritatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan.

Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrera apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %19,7a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %18,7aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %25,0k dute arrisku hori, gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %17,3ra jaisten den bitartean.



OHZri dagokionez, 2021eko datuen arabera hasierako egoera honakoa da:

Jabea	Kopurua		Balio katastrala		Ordaintzeko kuota	
Pertsona juridikoa	11.182	2,9	12.887.490.536	22,7	30.451.378	24,8
Pertsona fisikoa	376.093	97,1	43.891.662.795	77,3	92.570.558	75,2
Guztira	387.275	100,0	56.779.153.331	100,0	123.021.936	100,0

eurotan

- Ondasun higiezin 387.725 jabe daude, eta horietatik %2,9% pertsona juridikoak dira, eta beste %97,1 pertsona fisikoak.
- Pertsona juridikoak dituzten hiri ondasunen balio katastrala guztira 12.887 milioi eurotakoa da (guztiaren %22,7); eta pertsona fisikoek 43.892 milioi eurotako (guztiaren %77,3) balio katastrala duten ondasunen jabeak dira.
- OHZgatik ordaindu beharreko kuota osoaren (123 milioi euro) %24,8a (30 milioi euro) pertsona juridikoek ordaintzen dute; eta pertsona fisikoek %75,2a (93 milioi euro).

Zenbateko horien emakumeen eta gizonen arteko banaketa honako da:

Jabea	Kopurua		Balio katastrala		Ordaintzeko kuota	
Emakumea	192.889	51,3	22.930.304.927	52,2	48.078.143	51,9
Gizona	183.204	48,7	20.961.357.867	47,8	44.492.415	48,1
Guztira	376.093	100,0	43.891.662.795	100,0	92.570.558	100,0

eurotan

- 376.093 pertsona fisiko jabeetatik %51,3a emakumezkoa da eta %48,7a gizonzkoa.
- Emakumezkoek pertsona fisikoek duten balio katastral osoaren %52,2a metatzen dute eta gizonzkoek beste %47,8a.
- OHZgatik emakumezkoek 48 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %51,9) eta gizonzkoek 44 milioi euro (guztiaren %48,1).



PFEZren hasierako egoerari buruz, 2021ean aurkeztutako aitortzenen (2020ko ekitaldi fiskalari dagozkionak) datu nagusiak honakoak dira:

	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Aitortzen kopurua	385.187	171.413	213.774	44,5	55,5
Oinarri likidagarria	10.344.544.995	4.052.111.037	6.292.433.957	39,2	60,8
Kuota likidoa	1.907.208.080	684.694.752	1.222.513.329	35,9	64,1

eurotan

Guztira 385.187 aitortzen aurkeztu dira, eta horietatik %55,5a gizonezkoenak dira, eta beste %44,5a emakumezkoenak.

Baterako aitortzenen kasuan, eta aitortzaile bat baino gehiago dagoenean, aitortzenari oinarri ezargarrian zenbateko handiena duen pertsonaren sexua eman zaio. Hipotesi horrek nabarmen mugatzen du emaitzen irismena; izan ere, balizko eragin positibo edo negatibo guztia bikoteko pertsona bati bakarrik esleitzen dio (kasu honetan, batez ere gizonei). Benetan, onura edo galera horrek biei eragiten dienean.

PFEZa bezalako zerga progresibo batean, ezinezkoa da baterako aitortzena bat bi banakako aitortzenetan zatitzea, eta kuota likidoaren emaitza bera lortzea.

Hipotesi horrekin, guztira aitortutako oinarri likidagarriaren 10.345 milioi eurotik, %60,8a gizonei esleitu zaie, eta %39,2a emakumezkoiei. Eta zergarengatik ordaindutako zenbatekoa osotik (1.907 milioi euro), 1.222 milioi (%64,1) gizonei esleitu zaie, eta 685 milioi (%35,9) emakumezkoiei.

Proiektu honetan aldatu nahi diren zerga kontzeptuei dagokienez, 2020ko aitortzenetan erakusten duten banaketa honakoa da:



Kontzeptua	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Batera tributatzeagatik murrizp.	289.589.055	66.674.960	222.914.096	23,0	77,0
Kuota orokorraren murrizpena	531.147.575	234.701.722	296.445.853	44,2	55,8
Kenkaria: ondorengoak	113.356.284	48.412.237	64.944.048	42,7	57,3
Kenkaria: aurrekoak	542.800	250.669	292.131	46,2	53,8
Kenk: ondorengoei urteko or.	1.522.592	59.065	1.463.527	3,9	96,1
Kenkaria: adina	40.996.820	15.642.172	25.354.648	38,2	61,8

eurotan

- Batera tributatzeagatik dagoen murrizpenaren %77,0a gizonetara aplikatzen dute.
- Kuota osoaren murrizpenean gizonetara %55,8a metatzen dute.
- Ondorengoetatik dagoen kenkariaren %57,3a gizonetara aplikatzen dute.
- Aurrekoetatik dagoen kenkariaren %53,8a gizonetara metatzen dute.
- Ondorengo urteko mantenua ordaintzeagatik dagoen kenkariaren gehiengo nagusia (%96,1) gizonetara aplikatzen dute.
- Adinagatik dagoen kenkariaren %61,8a gizonetara metatzen dute.

3.2.2 Aztertutako neurriak

3.2.2.1 Aurrekontu Orokorrei buruzko araudia

2022ko aurrekontu proiektu honetako programak genero ikuspegitik aztertu dira. Programa horiek sailkatuta daude eragin handikoak, eragin ertainekoak eta eragin txikikoak bezala.

Azterketa eragin handiko eta ertainetara mugatu da. Azkenean, 34 programa aztertu dira, aurrekontu propio osoaren %61,9. Horrela, aurrekontu propio osoa 995 milioi eurokoa bada, aztertutako 34 programen zenbatekoa 616 milioi eurokoa da. Horietatik, 23 programa garrantzi handikoak dira generoaren ikuspegitik eta kudeatutako gastua 464 milioi eurokoa da (%46,6). Bestalde, garrantzi ertaina duten beste 11 programak kudeatutako gastua 152 milioi eurokoa da (%15,3).



Zenbateko horiek ikusita; esan dezakegu, programa horiek ondo ordezkatzeko dituztela foru aldunditik bultzatutako politika publikoak.

3.2.2.2 Ondare Higiezinaren gaineko Zergari buruzko araudia

OHZren 2021eko ekitaldi fiskaleko erroldako datuetatik abiatuta, aurreikusia da proposatutako aldaketak 1,4 milioi eurotako eragin positiboa izango duela zerga-bilketan.

Zenbateko horretatik, %48,1 gizonezkoei dagokie, eta ordaintzeko zenbatekoa 674.202 eurotan handituko zaie. Emakumezkoen kasuan, ordaintzeko kuotaren igoera 728.196 eurotako izango da (guztiaren %51,9%).

	Eragina zerga-bilketan				
	euroak			%	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Guztira	1.402.398	728.196	674.202	51,9	48,1

3.2.2.3 Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko araudia

2020ko ekitaldi fiskaleko aitortzenetik abiatuta (2021ean aurkeztuak) aurreikusi da proposatutako aldaketek 18,2 milioi eurotako eragin negatiboa izango dutela zerga-bilketan.

Zenbateko oso horretatik, %62,2a gizonezkoei dagokie, eta ondorioz, zergarengatik ordaindu beharreko zenbatekoa 11,3 milioi eurotan jaitsiko zaie. Emakumezkoen kasuan, ordaintzeko zenbatekoaren jaitsiera 6,9 milioi eurotako da (guztiaren %37,8).



Kontzeptua	Eragina zerga-bilketan				
	Euroak			%	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Batera tributatzegatik murrizpena	-996.178	-204.390	-791.788	20,5	79,5
Tarifa	-7.894.584	-3.068.903	-4.825.681	38,9	61,1
Kuota orokorraren murrizpena	-7.464.529	-2.901.725	-4.562.804	38,9	61,1
Kenkaria: ondorengoak	-1.399.302	-567.696	-831.607	40,6	59,4
Kenkaria: aurrekoak	-6.318	-2.793	-3.525	44,2	55,8
Kenkaria: ondorengoei urteko orda.	-20.994	-676	-20.318	3,2	96,8
Kenkaria: adina	-404.103	-133.451	-270.652	33,0	67,0
GUZTIRA	-18.186.010	-6.879.635	-11.306.376	37,8	62,2

Zerga-bilketaren eragina kontzeptuka aztertuta, honakoa nabarmentzen da:

- Batera tributatzegatik dagoen murrizpenaren ondorioz emandako jaitsieraren %79,5a gizonezkoek eramaten dute.
- Ondorengoei urteko ordainketak egiteagatik dagoen kenkariaren ondorioz izandako jaitsieraren ia-ia guztia gizonezkoek eramaten dute.

3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

Alde batetik, eta aurrekontu araudiari dagokionez, horien eragina genero aldetik zehaztasun handiagoarekin egiten da proiektuarekin batera doan txostenean: "2022ko Aurrekontuak generoaren ikuspegitik duen eraginaren azterketa – Txosten exekutiboa".

Nahiz eta txosten horretan programa bakoitzaren datuak eta aurrekontu zenbatekoak agertzen diren sexuaren arabera bereizita, horiek ez dute balio desberdintasunak genero ikuspegitik aztertzeko eta identifikatzeko. Programak garrantziaren arabera kategorizatzeaz gain, beharko litzateke:

- programa bakoitzaren jarduketa eremuko abiapuntu egoera aztertu.



- programa bakoitzean garatzen diren neurriak kontuan hartu eta aztertu neurri horiek benetan laguntzen duten genero estereotipo eta eginkizun sozialak hausten.
- eragin negatiboa izango dutela aurreikusten den programen kasuan, berdintasunaren aldeko neurri zuzentzaile zehatzak identifikatu.

Horrela soilik azter liteke foru arau proiektu honek zenbateraino erantzuten dien identifikatutako desberdintasunei eta programa bakoitzean esleitutako jarduerak eta zenbatekoak emakumeen eta gizonen egoeran eta berdintasunean izango lituzketen ondorioei.

Azterketa hori egin ahal izateko, hobetu egin beharko litzateke aurrekontu programa bakoitzaren informazio bilketa. Eta horren haritik, hobekuntza prozesu bati hasiera eman zaio, aurrekontuen genero eragina aurretiaz ebaluatzeko txostena osatzeko helburuarekin. Prozesu horrek mugarri hauek ditu:

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean eta "GFAREN lan prozeduretan genero ikuspegia txertatzeko bidean aurrera eginez" helburuaren barruan, horri buruzko berariazko ekintzak sartzea. Ekintza horien artean, nabarmentzekoak dira:
 - Berrikustea, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen esperientziatik abiatuta, araudiaren genero eragina ebaluatzeko aurretiazko txostenak egiteko prozedura.
 - Aurrera egitea Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeko lan metodologiaren hobekuntzan.



Hobekuntza prozesuak honako hauek bete beharko ditu:

- Programa bakoitza genero ikuspegitik aztertzea, dauden arrakalak antzemateko.
- Ekitaldian aplikatu beharreko neurri zuzentzaile zehatzak finkatzea.
- Neurri zuzentzaileak ebaluatzeko mekanismoak finkatzea.

Hobekuntza prozesu hori 2021ean hasi da esperientzia pilotu gisa, lau aurrekontu programarekin, eta bi helburu ditu:

- Aurrekontu programen fitxen edukia eta beraiek egiteko moduari buruzko hausnarketa eta azterketa prozesu bat egitea, emakumeen eta gizonen berdintasunean duen eraginari dagokionez. Xedea da horien genero eragina ebaluatzeko txostenak hobetzea.
- Aurrekontu programen fitxen edukiak aldatzea eta hobetzea, genero ikuspegia programa horietan txertatzeari dagokionez, arreta berezia jarriz eta identifikatuz programa bakoitzaren barruan dauden genero desberdintasunei, eta helburuak, ekintzak eta aurrekontuak desberdintasun horien murrizketara egokitzeari.

Ibilbide luzeko prozesua da, entsegu honen bidez gainerako programetara hedatu daitezkeen metodologia finkatu ahal izateko.

Adibide gisa, proiektu pilotuan sartutako programen aurretiazko genero eraginaren ebaluazio txostenak erantsi dira: kirolaren sustapena, adinekoen arreta, funtzio publikoa eta lurraldearekiko konpromisoa.



Programa bakoitzerako honako hauek jasotzen dira: txostenaren xedea eta oinarria, genero egokitasunaren azterketa, araugintzako aginduak; genero desberdintasunen identifikazioa eta hartutako neurri zuzentzaileak.

4 programen txostenek, azkenik, adierazten dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren gáineko eragin positiboa espero dela.

OHZri dagokionez, emakumeek aitortutako balio katastralen %52,2 metatzen dute, eta zertxobait gutxiago ordaintzen dute (%51,9). Emakumeen aldeko diferentzia positiboa oso txikia bada ere, proposatutako arau aldaketak ez du erlazio hori aldatzen, eta, beraz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eragin positiboa izatea espero da.

PFEZaren zerga-araudian proposatutako aldaketei dagokienez, emakumeek zergaren % 35,90 ordaintzen dute. Proposatutako arau aldaketen ondorioz, portzentaje hori %35,88ra jaistea espero da. Portzentajeen arteko aldea oso txikia bada ere, emakumeen errenta eskuragarria gehiago haziko da, eta, beraz, hasiera batean, eragin positiboa espero da emakumeen eta gizonen berdintasunean.

Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar lehen aipatutako abiapuntuak hipotesiak nabarmen mugatzen dituela lortutako emaitzak, eta horren balorazioa ere alda lezakeela.

Pertsona Fisikoen Errentaren gáineko Zerga

	Emakumeak	Gizonak
Kuota likido originala	35,90	64,10
Simulatutako kuota likidoa	35,88	64,12



Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu egin dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak. Alde batetik, Ekonomia Itunaren 3. artikulua ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei buruzko Lege Orokorra ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak. Eta bestalde, ordenamendu juridikoko beste arau batzuetan espresuki zehaztuta daudelako errespetatu behar direnak.

Donostia, 2021eko urriaren 28a

jo
XAL

Sin.: José Antonio Lapeira Oyarzabal
AZTERLANETAKO ATALBURUA